

## Hogeita hamar enpresa inguru izango dira La Habanako Nazioarteko Ferian – FIHAVen parte hartuko dutenak

- *Kubak kanpo aldera begira duen erakusleihorik garrantzitsuena da feria hau eta **urriaren 30etik, astelehenetik, azaroaren 3 arte, ostirala arte, luzatuko da.***
- *Euskadi pabilioiaren babesean, sektore ezberdinetako euskal enpresek parte hartzen duten sektoreaniztuneko feria bakarra da.*
- *Eusko Jaurlaritzako ordezkariak astelehenean bertan inauguratuko duten euskadiko pabilioian kokatuko dira euskal enpresak.*

**Donostia - 2017ko urriaren 29a** - Gipuzkoako Bazkundera buru izanik eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin Eusko Ganberak Kubara itzuliko dira berriro ere euskal enpresak Kubako merkatura gerturatzeko asmoz. Euskal Ganberak 1999 urtetik antolatzen dute euskal enpresen parte hartzea feria honetan.

Aurtengo edizioa, XXXV. zehatz mehatz, hilaren 30ean, astelehenean hasiko da eta azaroaren 3an, ostiralean amaituko da. Kasu honetan 29 enpresek parte hartuko dute eta sektore anitzekoak dira, energia, motoreak, elektrizitate maneiak eta hotel hornikuntza sektoreak nabarmentzen direlarik. Euskal enpresak, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak astelehenean bertan inauguratuko duten euskadiko pabilioian kokatuko dira.

La Habanako feria kontaktu gune bat da. Kubako enpresa garrantzitsu guztiak pasatzen diren gunea da, oso feria egokia beraz herrialdean sartzeko edota bezeroak diren edo izan daitezkeen Kubako enpresa guztiekin kontaktuak berritzeko.

Kuban gertatzen ari diren aldaketak interes berezia sortzen ari dira mundu osoko gobernu eta enpresen artean herrialdearekiko eta hori begi bistakoa izango da aurtengo ferian, aurreko bitan izan zen bezala, ordezkari instituzional eta enpresa gehiago bertaratuko direlarik.

### **Kuba aukera berrien merkatua**

Kubako ekonomian egin nahi den aldaketa handiena kanpoko inbertsoreei irekitzeari lotuta dago eta hauek egunerokoan izango duten eraginari. Estatu Batuekin harreman komertzialak irekitzeak ere eragin berezia izango du gai honetan, nahiz eta hau pixkanaka burutzen joango den. Aipatzeko da ere Atzerriko Inbertsioen Lege berria, ekonomia dinamizatze eta atzerriko inbertsioa erakartzeko proiektu berriei atea ireki dielako, espazio berrien garapenaren sustapenaren bitartez, Mariel Cuba Garapen Gune Berezia den bezalaxe.

Kubara heltzen diren kanpoko inbertsioak honako sektoreetan biltzen dira: oiarrizko industria (energia, meatzaritza eta porlana), turismoa, eraikuntza, industria arina, nekazaritza eta elikadura industria. Espainiako enpresentzat, turismoak eta hoteletarako hornikuntzen kontatuak garrantzitsuak izaten jarraitzen dute (eraikuntza materialak, taldeak, altzariak edota elikadura eta edariak). Espainia Kubaren hirugarren sozio komertziala da Venezuela eta Txinaren atzetik. Dena den, kontutan izan behar dugu azken urte honetan kanpo merkatuaren hazkundera gelditu egin dela herrialdeak dibisak lortzeko duen zailtasunarengatik, bere esportazioak hazten ez direlako eta atzerritik iristen diren bidalketak batez ere Venezuelakoak murriztuak geratzen ari direlako ordainketa epeak betetzeko zailtasunarengatik.

### **Esportazioak EAetik Kubara**

Euskal Autonomi Erkidegoko enpresek Kubara egiten dituzten esportazioak, herrialdeak euskal enpresen artean sortzen duen interesaren islada da. 2016an esportazio hauek espainiako esportazioen %14a baino gehiago izan ziren, nahiz eta aurten jaisten ari diren Espainiatik Kubarako esportazio orokorren maila berdinean. Herrialdeak dituen finantza gora behereko zailtasunak sortzen ari dira ordainketen konpromisuak bete ahal izateko orduan eta hori dela eta ordainketa epeetan gehiegizko luzatze bat ematen ari da. Zailtasun hauek inportazioen erritmo jaitsiera ekarri dute, hau 2016an ikusten zen zerbait zelarik eta 2017 honetan nabarmenagoa izaten ari dena.

**Esportazioak EAetik Kubara ( mila eurotan)**

<b>Probintzia</b>	2014	2015	2016	<b>Abuzutua arteko datuak</b>	2016	2017	2017 2016arekiko
BIZKAIA	56.584,63	71.796,08	69.289,70	BIZKAIA	39.289,70	38.383,10	% -2,3
GIPUZKOA	42.260,73	64.555,86	49.433,35	GIPUZKOA	34.582,44	28.549,15	% -17,4
ARABA	7.384,71	9.410,42	9.771,85	ARABA	7.763,40	8.267,02	% 6,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>106.230,06</b>	<b>145.762,36</b>	<b>128.494,91</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>90.161,05</b>	<b>75.199,28</b>	<b>% -16,6</b>

**Informazio gehiago nahi izanez gero:**

Irune Bengoetxea

[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)

943 000 310 / 688884347